| EUSKAL HERRIKO AGINTARITZAREN ALDIZKARIA | BOLETIN OFICIAL DEL PAÍS VASCO |
|---|---|
| 206. zb. 2007ko urriaren 25a, osteguna | Nº 206, jueves 25 de octubre de 2006 |
| | |
| EBAZPENA, 2007ko uztailaren 30ekoa, Kirol zuzendariarena, **Boleibol Euskal Federazioaren Estatutuen** aldaketa onartu eta EAEko Kirol Erakundeen Erregistroan inskribatzeari duena. | RESOLUCIÓN de 30 de julio de 2007, del Director de Deportes, por la que se aprueba e inscribe en el Registro de Entidades Deportivas del País Vasco la modificación de los **Estatutos de la Federación Vasca de Voleibol**. |
| | |
| Boleibol Euskal Federazioa EAEko Kirol-Elkarteen eta Federazioen Erregistroan inskribatu zen 1986ko apirilaren 23an, 87. zenbakiarekin. Federazioaren estatutuak berriro erredaktatu dira orain.<br><br>Boleibol Euskal Federazioak 2006ko ekainaren 30ean egindako Ezohiko Batzar Orokorrean bere estatutuak onartzeko erabakia hartu zuen eta onarpen hori agiri bidez frogatu da.<br><br>Aldaketa hori bat dator urtarrilaren 31ko 16/2006 Dekretuan eta Euskadiko Kirolaren ekainaren 11ko 14/1998 Legean xedatutakoarekin.<br><br>Ondorioz, nire eskumenak erabiliz | A la vista de la nueva redacción dada a los Estatutos de la Federación Vasca de Voleibol, inscrita en el Registro de Entidades Deportivas del País Vasco el 23 de abril de 1986 con el número 87.<br><br>Resultando que la Asamblea General Extraordinaria de la Federación Vasca de Voleibol, celebrada el 30 de junio de 2006, aprobó la modificación de los Estatutos y que tal aprobación se ha acreditado documentalmente.<br><br>Considerando que la modificación de los estatutos es conforme con los preceptos del Decreto 16/2006, de 31 de enero y de la Ley 14/1998, de 11 de junio, del Deporte de Euskadi.<br><br>En su virtud, en ejercicio de las facultades que me competen. |
| | |
| **EBATZI DUT:** | **RESUELVO:** |
| | |
| Lehenengoa.– Boleibol Euskal Federazioaren Estatutuen aldaketa onartu eta EAEko Kirol Erakundeen Erregistroan inskribatzea.<br><br>Bigarrena.– Legez ezarritako epean jakinarazteko agindua ematea.<br><br>Hirugarrena.– Ebazpen hau eta bere eranskina Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratzea.<br><br>Laugarrena.– Ebazpen honek administrazio bidea amaitzen du eta, bere aurka, aukerako berraztertze errekurtsoa aurkez dakioke Kirol zuzendariari hilabeteko epean, ebazpena jakinarazten den egunaren biharamunetik aurrera. Administrazioarekiko auzi-errekurtsoa ere aurkeztu ahal izango zaio EAEko Auzitegi Nagusiari, jakinarazten den egunetik bi hilabeteko epean.<br><br>Vitoria-Gasteiz, 2007ko uztailaren 30a.<br><br>Kirol zuzendaria,<br><br>JOSÉ RAMÓN GARAI ITURRIONDOBEITIA. | Primero.– Aprobar e inscribir en el Registro de Entidades Deportivas del País Vasco la modificación estatutaria de la Federación Vasca Voleibol.<br><br>Segundo.– Notifíquese en el plazo legal establecido.<br><br>Tercero.– Publicar la presente resolución y el anexo en el Boletín Oficial de País Vasco.<br><br>Cuarto.– Contra la presente Resolución, que agota la vía administrativa, se podrá interponer, con carácter potestativo, recurso de reposición ante el Director de Deportes, en el plazo de un mes contado a partir del día siguiente de su notificación, o bien, se podrá interponer contra la misma, recurso contencioso-administrativo ante el Tribunal Superior de Justicia del País Vasco, en el plazo de dos meses desde su notificación.<br><br>En Vitoria-Gasteiz, 30 de julio de 2007.<br><br>El Director de Deportes,<br><br>JOSE RAMÓN GARAI ITURRIONDOBEITIA. |
| | |
| | |

| | |
|---|---|
| **ERANSKINA**<br>**BOLEIBOL EUSKAL FEDERAZIOKO ESTATUTUAK**<br>**I. TITULUA**<br>**XEDAPEN OROKORRAK** | **ANEXO**<br>**ESTATUTOS DE LA FEDERACIÓN VASCA DE VOLEIBOL**<br>**TÍTULO I**<br>**DISPOSICIONES GENERALES** |
| 1. artikulua.– Boleibol Euskal Federazioa nortasun juridikoa eta jarduteko ahalmena duen irabazi asmorik gabeko erakunde pribatua da. Kirolariak, teknikariak, epaileak, klubak eta kirol elkarteak biltzen ditu Euskal Autonomia Erkidegoan, Boleibola (boleibola, hondartzako boleibola, belarreko boleibola eta historian zehar sor daitezkeen beste modalitate batzuk) praktikatu, sustatu eta antolatzeko; eta, halaber, boleibol modalitate guztiak Euskal Autonomia Erkidegoan eraendu, administratu eta garatzeko. | Artículo 1.– La Federación Vasca de Voleibol es la entidad privada sin ánimo de lucro, con personalidad jurídica propia y capacidad de obrar, que reúne a deportistas, técnicas y técnicos, juezas y jueces, clubes y agrupaciones deportivas para la práctica, promoción y organización de todas las modalidades de voleibol (voleibol, voley-playa, voley-hierba, y cuantas otras modalidades puedan surgir a lo largo de la historia), así como regir administrar y desarrollar todas las formas de voleibol en la Comunidad Autónoma del País Vasco. |
| 2. artikulua.– Honako hauek arautzen dute Boleibol Euskal Federazioa: Euskadiko Kirolaren ekainaren 11ko 14/1998 Legeak; Euskadiko Kirol Federazioen urtarrilaren 31ko 16/2006 Dekretuak; aipatu legeari dagozkion gainerako garapen-xedapenek; estatutu eta erregelamendu bereziek; eta bere organoek baliozkotasunez hartutako hitzarmenek. | Artículo 2.– La Federación Vasca de Voleibol se rige por la Ley 14/1998 de 11 de junio, del Deporte del País Vasco; por el Decreto 16/2006, de 31 de enero, de federaciones deportivas del País Vasco, y demás disposiciones de desarrollo de la Ley; por los presentes estatutos y reglamentos específicos y por los acuerdos válidamente adoptados por sus órganos propios. |
| 3. artikulua.– Boleibol Euskal Federazioaren helbidea: Lasarte bidea, z/g, IVEF Eraikina, 01007 Vitoria-Gasteiz, Araba. | Artículo 3.– La Federación Vasca de Voleibol tiene su domicilio en la calle Carretera de Lasarte s/n (Edificio IVEF) de Vitoria-Gasteiz CP: 01007, Territorio Histórico de Álava. |
| 4. artikulua.– Boleibol Euskal Federazioak kirol modalitateari dagozkion jarduera eta lehiaketa ofizialak sustatu, kalifikatu, baimendu, agindu eta antolatzen ditu EAEn. | Artículo 4.– La Federación Vasca de Voleibol impulsa, califica, autoriza, ordena y organiza las actividades y competiciones oficiales de todas las formas de voleibol en el ámbito autonómico. |
| 5. artikulua.– Boleibol Euskal Federazioak bere kirol modalitateari dagokion euskal kirol federatuaren ordezkaritza du Estatuan eta nazioartean. | Artículo 5.– La Federación Vasca de Voleibol ostenta la representación del deporte federado vasco correspondiente a su modalidad deportiva en el ámbito estatal e internacional. |
| 6. artikulua.– Federazioak, bere eginkizunak betetzeko, ondorengo funtzioak izango ditu: | Artículo 6.– Para el cumplimiento de sus fines la Federación Vasca de Voleibol ejercerá las siguientes funciones: |
| a) Estatuan eta nazioartean kirol modalitatea ordezkatzea, eta, hala dagokionean, federazioa beste erakunde batzuetan txertatzeko araubidea zehaztea. | a) Ostentar la representación de todas las formas del voleibol en el ámbito estatal e internacional y definir, en su caso, el régimen de adhesión de la Federación a otras entidades. |
| b) Federazioa osatzen duten lurralde federazioen jarduera koordinatzea. | b) Coordinar la actividad de las Federaciones Territoriales que la integran. |
| c) Euskal Autonomia Erkidegoan kirol modalitatearen lehiaketa ofizialak eta jarduerak antolatzea. | c) Organizar las competiciones oficiales y actividades de todas las formas de voleibol en el ámbito comunitario. |
| d) Parte hartzeko eta lehiatzeko arau propioak ezartzea; betiere bere eremuaz gaindiko lurraldeko federazioek ezarritako arauak aintzat hartuz, hala dagokionean. | d) Establecer sus propias normas de participación y competición, sin perjuicio de la aplicación, en su caso, de las normas dictadas por federaciones de ámbito superior. |
| e) Estatuko eta nazioarteko lehiaketetan Federazioko | e) Instrumentar la participación de todos sus estamentos en |

| | |
|---|---|
| estamentu guztien partaidetza antolatzea. | competiciones estatales e internacionales. |
| f) Kirol modalitatearen federazio lizentziak ematea. | f) Expedir las licencias federativas de todas las formas de voleibol. |
| g) Boleibolaren jardunean sortutako kirol gatazken berri izan eta ebaztea, betiere organo judizialen eta arbitraje-organoen eskumenak kontuan hartuz. | g) Conocer y resolver los conflictos deportivos que se originen en el desarrollo de su actividad, sin perjuicio de la competencia de los órganos judiciales y arbitrales. |
| h) Federazioaren arauak betetzeaz arduratzea eta, horiei jarraiki, diziplina ahalmena burutzea. | h) Velar por el cumplimiento de sus normas reglamentarias y ejercer la potestad disciplinaria con arreglo a las mismas. |
| i) Kirolean debekatuta dauden substantzia, talde farmakologiko eta arauz kanpoko metodoen erabilera prebenitu, kontrolatu eta zigortzen Administrazioarekin elkarlanean aritzea, horretarako zehaztuko den araudiari jarraiki. | i) Colaborar con la Administración en la prevención, control y represión del uso de sustancias y grupos farmacológicos prohibidos y métodos no reglamentarios en el deporte, conforme a la normativa que al efecto se determine. |
| j) dagokion kirol modalitateko teknikariak eta epaileak prestatzea, helburu horri begira ezarriko den araudiaren arabera. | j) Formar las y los técnicos y jueces de la modalidad deportiva conforme a la normativa que al efecto se determine. |
| k) Baliabide ekonomiko propioen destinoa eta izendapena zehaztea. Federazioaren jarduerarako beste erakunde batzuek transferitzen dizkioten baliabideak kudeatzea; eta bere baliabide guztiak zuzen erabiltzen direla kontrolatzea. | k) Establecer el destino y la asignación de los recursos económicos propios, gestionar los recursos que les transfieran otras entidades para el desarrollo de su actividad, y controlar la correcta aplicación de todos sus recursos. |
| l) Lurralde federazioei eta Federazioari atxikitako klub eta kirol elkarteentzako diru-laguntzak esleitu eta horien erabilera kontrolatzea. | l) Asignar y controlar la aplicación de las subvenciones que pudiera conceder a las Federaciones Territoriales y a los clubes y agrupaciones deportivas adscritas a ella. |
| m) EAEko administrazioekin elkarlanean aritzea kirola sustatzen eta, batik bat, 14/1998 Legeak federazioei zuzenean ezartzen dizkien lankidetza eta aholkularitzako eginkizunetan. | m) Colaborar con las administraciones del País Vasco en el cumplimiento de sus fines de promoción deportiva y, en particular, en aquellas funciones de cooperación y asesoramiento que la Ley 14/1998 atribuye directamente a las Federaciones. |
| n) Federazioaren estatutuak eta kirol araudiak gertatzea. | n) Elaborar sus estatutos y reglamentos deportivos y disciplinarios. |
| ñ) Federazioaren kirol modalitatean emakumeen eta gizonen arteko berdintasuna sustatzea eta, ahal den neurrian, bermatzea dagokion lurralde eremuan. | ñ) Promover y, en la medida de lo posible, garantizar la igualdad de mujeres y hombres en la práctica de su modalidad deportiva en su ámbito territorial. |
| o) Eta, oro har, dagokion kirol modalitatearen jarduera sustatu eta hobetzeko komeni den guztia ezartzea. | o) Y, en general, disponer cuanto convenga para la promoción y mejora de la práctica de todas las formas de voleibol. |
| 7. artikulua.– Boleibol Euskal Federazioak lurralde federazioekin batera garatuko ditu eginkizunak. | Artículo 7.– La Federación Vasca de Voleibol desarrollará sus funciones en coordinación con sus Federaciones Territoriales. |
| 8. artikulua.– Boleibol Euskal Federazioak ez du inoiz diskriminatuko arraza, sexu, erlijio, iritzi, sinesmen eta beste egoera pertsonal nahiz sozialengatik. | Artículo 8.– En el seno de la Federación Vasca de Voleibol no se permitirá discriminación alguna por razón de raza, sexo, religión, opiniones y creencias, o cualquier otra circunstancia personal o social. |
| | |
| **II. TITULUA** | **TÍTULO II** |

## FEDERAZIOKO KIDE EGITEA. LIZENTZIAK

9. artikulua.– 1.– Federazio lizentzia agiri pertsonal eta besterenezina da, zeinak titularrari Boleibol Euskal Federazioko kide izaera eta lehiaketa ofizialetan parte hartzeko ahalmena ematen dion, betiere lehiaketa bakoitzean dauden arauei jarraiki.

Estamentu guztiek ezinbesteko baldintza dute federazio lizentzia edukitzea, bai Boleibol Euskal Federazioak eta bere lurralde federazioek, eta bai lurraldez gaindiko beste edozein erakundek antolatutako lehiaketa ofizialetan parte hartu ahal izateko.

Federazio lizentzia duten estamentu guztiek Boleibol Euskal Federazioak bere lehiaketetarako ezartzen dituen arau, erregelamendu eta xedapen guztiak bete beharko dituzte.

Boleibol Euskal Federazioak estamentu motak, eta horien eginkizunak eta baldintzak zehaztuko ditu.

2.– Federazio lizentzia bakarra izango da Euskal Herrian, eta, horren bidez, titularra bai euskal federazioari eta bai dagokion lurralde federazioari atxikita egongo da.

3.– Aldi berean bi federaziotako kide izatea, dagokion baimena lortzearen bidez gauzatzen da.

4.– Euskal Herriko federazioak eta lurralde federazioek elkarrekin adostu ahal dute borondatezko harpidetza duen, eta ofiziala izango ez den txartela sortzea, zeinen barne ez baitago lehiaketa ofizialetan parte hartzeko eskubidea, ezta titularra federazio honetako kide izatea ere. Txartel horrek ofizialak ez diren zenbait kirol jardueretan parte hartzeko, eta zerbitzu jakin batzuk eskuratzeko aukera soilik darama barne.

5.– Federazio honek emandako lizentziak, autonomia erkidegoaz gaindiko eremuko lehiaketetan parte hartzeko gaituko du bere titularra, indarrean dagoen araudiak ezarritako kasu eta baldintzetan.

10. artikulua.– 1.– Euskal Autonomia Erkidegoan Boleibol Euskal Federakundeak du dagokion kirol modalitateko federazio lizentziak emateko eskumena, eta lurralde federazioak horiek bideratzeko eskumena duten erakundeak dira.

2.– Federazio honek, lizentziak emateko duen eskumenaren babesean, honakoak ezarriko ditu araudiari jarraiki: lizentzien agiri, kirol eta ekonomia erregimena, bere eskubide eta betebeharrak, iraupena, indarrean sartzeko data, kategoriak, kuotak, prozedura, formatua eta gainerako antzeko kontuak. Funtzio horrek barne hartuko du halaber nahitaezko arrisku-estaldurak bermatzen dituzten aseguru kolektiboak kontratatzea.

3.– Euskal federazioak borondatezko kuota gehigarria jaso ahal izango du federatuengandik, zerbitzu eta jarduera jakin batzuk finantzatzeko.

4.– Federazioak lizentzia bakoitzaren zenbateko garbia lurralde federazioen artean banatuko du Batzar Nagusiak onartutako terminoen arabera, eta urtarrilaren 31ko 16/2006

## INTEGRACIÓN FEDERATIVA. LICENCIAS

Artículo 9.– 1.– La licencia federativa es el documento de carácter personal e intransferible que otorga a su titular la condición de miembro de la Federación Vasca de Voleibol y le habilita para participar en sus competiciones oficiales siempre con arreglo a las reglas que en cada caso rijan las mismas.

Todos los estamentos deberán estar en posesión de la licencia federativa como requisito indispensable para poder participar en competiciones oficiales organizadas tanto por la Federación Vasca de Voleibol y sus Territoriales como por cualquier otro organismo de índole supraterritorial.

Todos los estamentos con licencia federativa se someterán a las normas, reglamentos y disposiciones que establezca la Federación Vasca de Voleibol, en lo relativo a sus competiciones.

La Federación Vasca de Voleibol determinará reglamentariamente las clases, cometidos y condiciones de los diferentes estamentos.

2.– La licencia federativa será única en el País Vasco y supondrá la doble adscripción de su titular a la Federación Vasca y a la correspondiente Federación Territorial.

3.– La integración simultánea en ambas federaciones se produce mediante la obtención de la correspondiente licencia.

4.– La Federación Vasca de Voleibol podrá crear, de común acuerdo con las Federaciones Territoriales de Voleibol, una tarjeta recreativa o de servicios, de carácter no oficial y de suscripción voluntaria, que no conllevará el derecho a participar en competición oficial alguna y que no supondrá la integración en esta Federación. Tal tarjeta sólo dará lugar a la participación en determinadas actividades deportivas no oficiales o a la obtención de determinados servicios.

5.– La licencia que emita esta federación habilitará a su titular para participar en competiciones oficiales de ámbito territorial superior en los casos y condiciones que establezca la normativa vigente.

Artículo 10.– 1.– La Federación Vasca de Voleibol es la entidad competente en la Comunidad Autónoma del País Vasco para emitir las licencias federativas de todas las formas de voleibol y las Federaciones Territoriales serán las entidades competentes para tramitarlas.

2.– Esta Federación, al amparo de su competencia para la emisión de licencias, establecerá reglamentariamente el régimen documental, deportivo y económico de las licencias, sus derechos y obligaciones, duración, comienzo de vigencia, categorías, cuotas, procedimiento, formato y demás cuestiones análogas. Tal función comprenderá también la contratación de los seguros colectivos que garanticen las coberturas obligatorias de riesgos.

3.– La Federación Vasca de Voleibol podrá percibir de sus federados y federadas una cuota adicional de carácter voluntario para la financiación de determinados servicios y actividades.

4.– La Federación Vasca de Voleibol repartirá con cada Federación Territorial de Voleibol el importe neto de cada licencia en los términos que apruebe la Asamblea General y

Dekretuaren 24.5 artikuluan xedatutakoari jarraiki. Zenbateko garbi hori era honetan lortuko da: zenbateko gordinari aseguruei eta lurralde eremuaz gaindiko lehiaketa ofizialetan parte hartzeko kuotei dagozkien zenbatekoak kenduz.

11. artikulua.– 1.– Federazioaren Batzar Nagusiak onartuko ditu lizentzien formatua eta edukia, eta lizentzia horietan, nahitaez, Euskal Autonomia Erkidegoko bi hizkuntza ofizialak erabili beharko dira.

2.– Lizentziak komunikazioaren teknologiak era egokian aprobetxatzeko moduko baldintza teknikoak dituen euskarri batean, eta Eusko Jaurlaritzak euskarri horiei dagokionean onartutako ezaugarri teknikoekin bat etorriaz igorriko dira.

3.– Lizentziaren agirian ondorengo kontzeptuak jasoko dira:

a) Nahitaezko aseguruen kuota.

b) Euskal federazioarentzako kuota: zenbateko garbiaren % 65a izango da.

c) Lurraldeko federazioarentzako kuota: zenbateko garbiaren % 35a izango da.

d) Federazioaren eremuaz gaindiko lehiaketa ofizialetan parte hartzeko kuota, hala dagokionean.

4.– Lizentziaren agirian, halaber, urtarrilaren 31ko 16/2006 Dekretuaren 25.4 artikuluan ezarritako edukiak jasoko dira.

5.– Federaturen batek gatazken judizioz kanpoko ebazpenari uko egiten badio, uko egite hori lizentzia dokumentuan agertuko da.

12. artikulua.– Federazioak igortzen dituen lizentzien iraupena urtebetekoa izango da, hots, denboraldi osorako.

13. artikulua.– Federazioak pertsona federatu berak izan ditzakeen lizentzien bateragarritasunari dagozkion hipotesi, baldintza eta eraginak zehaztuko ditu Lizentzien Arautegian.

## III. TITULUA
## GOBERNU, ADMINISTRAZIO ETA ORDEZKARITZA ORGANOAK

14. artikulua.– Boleibol Euskal Federakundean ondorengo gobernu, administrazio eta ordezkaritza organoak egongo dira:

a) Batzar Nagusia deitutako gobernu organoa.

b) Zuzendaritza Batzordea deitutako kide anitzeko administrazio organoa.

c) Batzorde Betearazlea deitutako administrazio organoa.

d) Ordezkaritza organoa zeinen titularra federazioko lehendakaria izango baita.

de acuerdo con lo establecido en el artículo 24.5 del Decreto 16/2006, de 31 de enero. Dicho importe neto será el resultante de minorar al importe bruto los importes correspondientes a seguros y a las cuotas para participar, en su caso, en competiciones oficiales de ámbito territorial superior.

Artículo 11.– 1.– El formato y contenido de las licencias serán aprobados por la Asamblea General de la federación y en dichas licencias deberán emplearse necesariamente las dos lenguas oficiales de la Comunidad Autónoma del País Vasco.

2.– Las licencias se emitirán en un soporte que cuente con unas condiciones técnicas que permitan un adecuado aprovechamiento de las tecnologías de la comunicación y de acuerdo con las especificaciones técnicas de dichos soportes que apruebe el Gobierno Vasco.

3.– En el documento de la licencia se consignarán los siguientes conceptos:

a) Cuota de los seguros obligatorios.

b) Cuota destinada a la Federación Vasca, que ascenderá al 65% del importe neto.

c) Cuota destinada a la Federación Territorial, que ascenderá al 35% del importe neto.

d) Cuota para participar, en su caso, en competiciones oficiales de ámbito territorial superior.

4.– En el documento de la licencia se consignarán también los contenidos establecidos en el artículo 25.4 del Decreto 16/2006, de 31 de enero.

5.– En caso de que el federado renunciase al arbitraje para la resolución de conflictos, dicha renuncia se hará constar en el documento de la licencia.

Artículo 12.– Las licencias que emita la Federación Vasca de Voleibol serán de duración anual, es decir, para toda la temporada.

Artículo 13.– La Federación determinará en el Reglamento de Licencias los supuestos, condiciones y efectos de la compatibilidad de las licencias que pueda ostentar una misma persona federada.

## TÍTULO III
## ÓRGANOS DE GOBIERNO, ADMINISTRACIÓN Y REPRESENTACIÓN

Artículo 14.– En la Federación Vasca de Voleibol existirán los siguientes órganos de gobierno, administración y representación:

a) Un órgano de gobierno denominado Asamblea General.

b) Un órgano de administración colegiado denominado Junta Directiva.

c) Un órgano de administración denominado Comisión Ejecutiva.

d) Un órgano de representación cuyo titular será el Presidente de la Federación.

| **I. KAPITULUA**<br>**BATZAR NAGUSIA** | **CAPÍTULO I**<br>**ASAMBLEA GENERAL** |
|---|---|
| 15. artikulua.– Batzar Nagusia federazioaren gobernu organo nagusia da, eta, gutxienez, ondorengo funtzioak bete beharko ditu: | Artículo 15.– La Asamblea General es el máximo órgano de gobierno de la Federación Vasca de Voleibol y tendrá encomendadas, como mínimo, las siguientes funciones: |
| a) Lehendakaria hautatzea. | a) Elegir Presidente. |
| b) Federazioko kontuak eta aurrekontuak onartzea. | b) Aprobar las cuentas y presupuestos de la Federación. |
| c) Estatutuak onartzea edo aldatzea. | c) Aprobar y/o modificar los estatutos. |
| d) Zentsura-mozioa onartzea. | d) Aprobar la moción de censura. |
| e) Lehiaketa ofizialen egutegia onartzea. | e) Aprobar el calendario de competiciones oficiales. |
| f) Federazioaren jarduera-plana onartzea. | f) Aprobar el plan de actuación de la Federación. |
| g) Federazioaren arautegiak onartzea edo aldatzea. | g) Aprobar y/o modificar los reglamentos federativos. |
| h) Ondasun higiezinak izatea, besterentzea eta zergapetzea; maileguak adostea, eta zorraren edo ondare zati alikuotaren tituluak jaulkitzea, estatutu hauetan xedatutakoari jarraiki. | h) Disponer, enajenar y gravar bienes inmuebles, concertar préstamos y emitir títulos de deuda o de parte alícuota patrimonial, conforme a lo establecido en los presentes estatutos. |
| i) Federazioaren desegitea erabakitzea. | i) Acordar la disolución de la federación. |
| j) Bere garrantzia dela eta Batzar Nagusiaren oniritzia eskatzen duten beste erabaki guztiak hartzea. | j) Adoptar todas aquellas otras decisiones que, por su trascendencia, precisen la aprobación de la Asamblea General. |
| 16. artikulua.– 1.– Boleibol Euskal Federakundearen Batzar Nagusia lau urtean behin hautatuko da, boto libre, zuzen, berdin eta sekretuaren bidez. Hautaketa hori, lurralde federaziotako Batzar Nagusi bakoitzean egingo da. | Artículo 16.– 1.– La Asamblea General de la Federación Vasca de Voleibol será elegida cada cuatro años mediante sufragio libre, directo, igual y secreto, en una elección que se realizará en el seno de cada Asamblea General de sus Federaciones Territoriales. |
| 2.– Edozein kasutan, hauteskundeak kirol modalitatearen joko olinpikoak egiten diren urteetan egingo dira beti, eta lurralde federaziotako batzar nagusiak berritu eta gero. | 2.– En todo caso, las elecciones se realizarán coincidiendo con los años de celebración de los Juegos Olímpicos de la modalidad deportiva y una vez se hayan renovado las Asambleas Generales de las Federaciones Territoriales. |
| 3.– Salbuespen gisa, eta Eusko Jaurlaritzak berariazko baimena eman eta gero, hauteskunde-prozesuaren hasiera atzeratu edo aurreratu daiteke, aurreikusitako hasiera-egunean ezinezkoa gertatzen bada. | 3.– Excepcionalmente, y previa autorización administrativa expresa del Gobierno Vasco, el inicio del proceso electoral podrá retrasarse o adelantarse cuando en las fechas de inicio previstas no resulte posible. |
| 17. artikulua.– 1.– Batzar Nagusia klub, kirol elkarte, kirolari, teknikari eta epaileen estamentuetako ordezkariek osatuko dute, ondorengo proportzioan: | Artículo 17.– 1.– La Asamblea General estará integrada por los representantes de los estamentos de clubes, agrupaciones deportivas, deportistas, técnicas y técnicos, y juezas y jueces en la siguiente proporción: |
| a) Batzarreko kide guztien % 70, klub eta kirol elkarteen estamentuan. | a) Una representación para el estamento de clubes y agrupaciones deportivas del 70% del total de miembros de la asamblea. |
| b) Batzarreko kide guztien % 15, kirolarien estamentuan. | b) Una representación para el estamento de deportistas del 15% del total de miembros de la asamblea. |
| c) Batzarreko kide guztien % 8 teknikarien estamentuan. Era berean, ordezkaritza eta hauteskundeak deitzeko unean dauden estamentu bakoitzaren lizentzia kopurua proportzionalak izango dira. | c) Una representación para los estamentos de técnicos y técnicas del 8% de los miembros de la asamblea, siendo la representación proporcional al número de licencias de cada estamento existentes en el momento de convocarse elecciones. |
| d) Epaileen estamentuaren ordezkariak batzarreko kide guztien % 7n ezarritako ehunekoan egongo dira. Ordezkaritza eta hauteskundeak deitzeko unean dauden estamentu bakoitzaren lizentzia kopurua proportzionalak izango dira. | d) Una representación para los estamentos de jueces y juezas del 7% de los miembros de la asamblea, siendo la representación proporcional al número de licencias de cada estamento existentes en el momento de convocarse elecciones. |
| 2.– Aurreko erregela aplikatu eta gero estamentu bakoitzean geratzen den ehuneko osoa honela banatuko da: estamentu bakoitzeko, Euskal Federazioan erroldatutako pertsona guztiei | 2.– El porcentaje global que resulte para cada estamento, tras aplicar la regla anterior, se distribuirá atribuyendo a cada una de las Federaciones Territoriales un número de |

| | |
|---|---|
| dagokionean, atxikita dituen kide kopuruarekin proportzionala den ordezkari kopuru jakin bat esleituko zaio lurralde federazio bakoitzari. | representantes proporcional al número de miembros que tengan adscritos por cada estamento en relación con el total de los censados en la Federación Vasca. |
| 3.– Boleibol Euskal Federakundearen Batzar Nagusiak 43 (berrogeita hiru) kide izango ditu guztira. | 3.– El número total de componentes de la Asamblea General de la Federación Vasca de Voleibol será de 43 (cuarenta y tres) miembros. |
| 18. artikulua.– 1.– Euskal Autonomia Erkidegoko Kirol Erakundeen Erregistroan izena emanda, eta dagokien lurralde federazioari atxikita egonda, hauteskundeak egiten diren denboraldian nahiz aurrekoan kirol jarduera esanguratsua izan duten klub eta elkartetako ordezkarien artean hautatuko dira Klub eta kirol elkartetako estamentuko ordezkariak. | Artículo 18.– 1.– Las y los representantes del estamento de clubes y agrupaciones deportivas se elegirán por y entre la representación de los clubes y agrupaciones que, figurando inscritas en el Registro de Entidades Deportivas del País Vasco y adscritas a la Federación Territorial de voleibol correspondiente, hayan realizado actividad deportiva significativa durante la temporada de celebración de elecciones y que la hayan tenido en la temporada anterior. |
| 2.– Kirolarien estamentuko ordezkariak, hauteskundeak egingo diren denboraldian nahiz aurrekoan lizentzia indarrean duten hamazortzi urtetik gorako kirolarien artean hautatuko dira. Lehen azaldutako baldintzak betetzen dituzten hamasei urtetik gorako kirolariek aukeratuko dituzte ordezkariak. | 2.– Las y los representantes del estamento de deportistas se elegirán entre deportistas mayores de dieciocho años que tengan licencia en vigor para la temporada de celebración de las elecciones y que la hayan tenido en vigor también la temporada inmediatamente anterior. Dicha representación será elegida por las y los deportistas mayores de dieciséis años que cumplan las condiciones antes señaladas. |
| 3.– Teknikarien ordezkariak, lizentziaren kategoria edozein dela ere, hauteskundeak egingo diren denboraldian nahiz aurreko denboraldian lizentzia indarrean dutenen artean hautatuko dira. | 3.– Las y los representantes de técnicos y técnicas se elegirán por y entre quienes tengan licencia en vigor para la temporada de celebración de las elecciones y la hayan tenido también en la temporada inmediatamente anterior, cualquiera que sea la categoría de la licencia. |
| 4.– Epaileen ordezkariak, lizentziaren kategoria edozein dela ere, hauteskundeak egingo diren denboraldian nahiz aurreko denboraldian lizentzia indarrean dutenen artean hautatuko dira. | 4.– Las y los representantes de jueces y juezas se elegirán por y entre quienes tengan licencia en vigor para la temporada de celebración de las elecciones y la hayan tenido también en la temporada inmediatamente anterior, cualquiera que sea la categoría de la licencia. |
| 5.– Aukeratuak izan diren denboraldian Batzar Nagusiko kideen artean plaza librerik geratzen bada, Batzar Nagusirako azken hauteskundeetan estamentu bakoitzari dagokion ordezkoen zerrendan agertzen den lehenengo pertsonak beteko du, Hauteskunde Arautegiak hartarako xedatutako prozedurari jarraiki. | 5.– Si durante el período para el que resultaron elegidos, se produjera alguna vacante entre los miembros de la Asamblea General, se cubrirán por la persona que encabece la lista de suplentes de cada estamento en las últimas elecciones a la Asamblea General, de acuerdo con el procedimiento que establezca al efecto el Reglamento Electoral. |
| 6.– Lurralde federazioren batean estamentu jakinik ez badago, edo estamentua osatzen duten pertsona kopuruarekin lurralde federazio horri esleitutako gutxieneko ordezkaritza lortzen ez bada, estamentuaren plaza libreak lurralde federazio horren gainerako estamentuei proportzionalki esleituko zaizkie. | 6.– Si en una Federación Territorial de Voleibol no existe un determinado estamento o cuando la totalidad de las personas que forman un estamento no permite alcanzar el número mínimo de representación atribuido a esa Federación Territorial, las vacantes del estamento se atribuirán proporcionalmente al resto de los estamentos de dicha Federación Territorial. |
| 19. artikulua.– 1.– Batzar Nagusiak ohiko eta ezohiko bilerak egiten ditu: | Artículo 19.– 1.– La Asamblea General se reúne en sesiones ordinarias y extraordinarias: |
| 2.– Ekitaldi bakoitzean, gutxienez, ohiko bilera bat egingo du Batzar Nagusiak, urteko lehen seihilekoan. Xedea hauxe izango da:<br>a) Kontuen eta aurrekontuen egoera onartzea.<br>b) Jarduera-plana onartzea.<br>c) Lehiaketen egutegi ofiziala onartzea. | 2.– La Asamblea General se reunirá en sesión ordinaria al menos una vez cada ejercicio, dentro del primer semestre, para:<br>a) Aprobar el estado de cuentas y presupuestos.<br>b) Aprobar el plan de actuación.<br>c) Aprobar el calendario oficial de competiciones. |
| 3.– Bere eskumeneko gainerako gaiak, hurrengo paragrafoan aurreikusitakoak izan ezik, halaber ohiko bileran tratatuko dira. | 3.– Los demás asuntos de su competencia, salvo los previstos en el párrafo siguiente, se tratarán también en asamblea ordinaria. |

| | |
|---|---|
| 4.– Batzar Nagusiak ezohiko bilera ospatuko du ondorengo gaiak tratatzeko:<br>a) Hauteskundeak burutzea.<br>b) Zentsura-mozioa.<br>c) Arautegiak onartzea edota aldatzea.<br>d) Estatutuak onartzea edota aldatzea.<br>e) Federazioa desegitea. | 4.– La Asamblea General se reunirá en sesión extraordinaria para tratar los siguientes asuntos:<br>a) Celebración de elecciones.<br>b) Moción de censura.<br>c) Aprobación y/o modificación de Reglamentos.<br>d) Aprobación y/o modificación de Estatutos.<br>e) Disolución de la federación. |
| 20. artikulua.– 1.– Ohiko eta ezohiko batzarrak biltzeko deia egitea federazioko lehendakariari dagokio ofizioz; bestela, Zuzendaritza Batzordeak edo Batzar Nagusiko kideen % 5ek eskatzen dutenean egingo du. Hori egin ezin bada, edo lehendakariak batzarrerako deialdiari dagokion betebeharra betetzen ez badu, deialdia Zuzendaritza Batzordeak ala Batzarreko kideen % 5 ordezkatzen duen kide talde batek egin ahal izango du. | Artículo 20.– 1.– La convocatoria de las Asambleas Generales Ordinarias o Extraordinarias corresponde al Presidente o Presidenta de la Federación Vasca de Voleibol de oficio, a petición de la Junta Directiva o del 5% de los componentes de la Asamblea General. Si ello no fuera posible, o el Presidente o Presidenta no cumpliera con su obligación de convocar la Asamblea, la Junta Directiva o un colectivo de miembros de la Asamblea que represente al 5% de sus componentes podrán realizar la convocatoria. |
| 2.– Horretarako eskumena duten edozein organo edo taldeek, eskaera egin eta gehienez 15 egun naturaletako epean egin beharko du lehendakariak Batzar Nagusirako deialdia. | 2.– El Presidente o Presidenta de la Federación Vasca de Voleibol deberá realizar la convocatoria a la Asamblea General en el plazo máximo de 15 días naturales a partir de que se formule la correspondiente solicitud, por cualquiera de los órganos o colectivos legitimados para ello. |
| 21. artikulua.– Ohiko nahiz ezohiko Batzar Nagusirako deialdia eta gai zerrenda, Batzarreko kideei, idatziz, gutxienez 15 eguneko aurrerapenarekin jakinaraziko zaizkie. | Artículo 21.– La convocatoria de la Asamblea General de la Federación Vasca de Voleibol, tanto ordinaria como extraordinaria junto con el orden del día, será comunicada a los miembros de la Asamblea, por escrito, con una antelación mínima de 15 días. |
| 22. artikulua.– 1.– Batzarreko kideek lehendakariari bere ustez interesgarriak diren gaiak gai zerrendan sartzea eskatu ahal izango diote, gutxienez, hamar eguneko aurrerapenarekin, eta betiere, eskaera gutxienez Batzarreko kideen % 5ak proposatzen badu, sartu beharreko gaia federazioarentzat interesgarria bada; ala estamenturen bateko kideen % 5ak eskatzen badu, sartu beharreko gaiak dagokion estamenturako lehentasunezko interesa badu. | Artículo 22.– 1.– Los miembros de la Asamblea General podrán solicitar del Presidente o Presidenta, con al menos diez días de antelación a la convocatoria, la inclusión en el orden del día de aquellos asuntos que consideren de interés, siempre que la solicitud se haga a propuesta, como mínimo, de un 5% de los miembros de la Asamblea, si el punto a incluir es de interés general de la Federación; o de un 5% de los miembros de uno de los estamentos, si el punto a incluir es de preferente interés para el estamento de que se trate. |
| 2.– Proposatutako gaia gai zerrendan sartzea onartzen ez bada, eskatzaileari jakinarazi beharko zaio, ukatzearen arrazoiak azalduz. | 2.– La denegación de la inclusión del punto propuesto en el orden del día deberá comunicarse al peticionario alegando las razones que hayan motivado la denegación. |
| 23. artikulua.– Batzar Nagusia lehen deialdian baliozkoa izango da baldin eta kideen erdiak gehi bat joaten badira. Bigarren deialdian, berriz, baliozkoa izango da bilerara joandako kide kopurua edozein dela ere. | Artículo 23.– La Asamblea General de la Federación Vasca de Voleibol quedará válidamente constituida en primera convocatoria cuando concurra la mitad más uno de sus miembros. En segunda convocatoria bastará con la concurrencia de cualquier número de asistentes. |
| 24. artikulua.– Batzar Nagusian botoaren eskuordetzea ez da onartuko. | Artículo 24.– No se admitirá la delegación de voto en el seno de la Asamblea General. |
| **II. KAPITULUA**<br>**ZUZENDARITZA BATZORDEA** | **CAPÍTULO II**<br>**JUNTA DIRECTIVA** |
| 25. artikulua.– 1.– Zuzendaritza Batzordea federazioko administrazio-organoa da, eta federazioko gaien administrazio- eta ekonomia-kudeaketaz arduratuko da. Horiek, Batzar Nagusiaren arauei jarraiki garatu beharko ditu. | Artículo 25.– 1.– La Junta Directiva de la Federación Vasca de Voleibol es el órgano de administración de la Federación y ejerce las funciones de gestión administrativa y económica de los asuntos federativos que deberá desarrollar conforme a las |

| | |
|---|---|
| | directrices de la Asamblea General. |
| Batzordeak hartzen dituen erabakien aurka egin ahal izango da. | Deportiva. |
| **VI. TITULUA**<br>**HAUTESKUNDE ERREGIMENA** | **TÍTULO VI**<br>**RÉGIMEN ELECTORAL** |
| 60. artikulua.– Boleibol Euskal Federakundearen hauteskunde erregimenean ondorengoek aginduko dute: urtarrilaren 31ko 16/2006 Dekretuaren VII. Tituluan xedatutakoak; hori garatzean ematen diren xedapenek; estatutu hauek; eta hauteskunde-arautegiak, zein derrigorrez Batzar Nagusiak onartu beharko baitu. | Artículo 60.– El régimen electoral de la Federación Vasca de Voleibol se regirá por lo dispuesto en el Título VII del Decreto 16/2006, de 31 de enero, por las disposiciones que se dicten en desarrollo del mismo, por los presentes estatutos y por el reglamento electoral que, con carácter obligatorio, deberá aprobar la Asamblea General. |
| 61. artikulua.– Federazioaren Batzar Nagusia aukeratzeko, hautesleak euskal federazioa osatzen duten lurraldeko federaziotako batzar nagusietako kideak izango dira. Aukeraketa honek ez ditu hauteskunde-prozesu baten ezaugarriak izango, eta lurraldeko Batzar bakoitzean burutu beharko da, berritu eta gero deitzen den lehenengo bileran, indarrean dagoen arautegiari jarraiki. | Artículo 61.– Para la elección de la Asamblea General de la Federación Vasca de Voleibol el cuerpo electoral estará compuesto por las y los miembros de las Asambleas Generales de las Federaciones Territoriales adscritas a la misma. Esta elección no revestirá las características de un proceso electoral y deberá realizarse en el seno de cada Asamblea Territorial en la primera reunión que se convoque tras su renovación de acuerdo con la normativa en vigor. |
| 62. artikulua.– Federazioan hauteskunde prozesua sustatzeaz eta haren garapen egokiaz arduratzen den Hauteskunde Batzordea egongo da. Hauteskunde Batzordea pertsona bakarrekoa izan daiteke. Taldeko organoa bada hiru kiderekin osatuta egongo da. | Artículo 62.– En la Federación Vasca de Voleibol existirá una Junta Electoral encargada de impulsar el proceso electoral y velar por su correcto desarrollo. La Junta Electoral podrá ser unipersonal. En caso de ser un órgano colegiado estará compuesto por tres miembros. |
| 63. artikulua.– Hauteskunde Batzordearen funtzioak lau urteko denbora-eperako izango dira; hala ere, Batzar Nagusiak denbora-epe hori bukatu baino lehen kargutik ken dezake, edo beste bat izendatu. | Artículo 63.– El ejercicio de las funciones de la Junta Electoral de la Federación Vasca de Voleibol tendrá una duración de cuatro años, sin perjuicio de que la Asamblea General pueda destituirla y nombrar otra antes de la conclusión de dicho periodo. |
| 64. artikulua.– 1.– Hauteskunde Batzordeko kideak nahiz ordezkoak zozketa publikoaren bidez hautatuko dira, hautagai izango ez diren pertsonen artean.<br>Boluntarioak ere hautatu daitezke, betiere Batzar Nagusira bertaratutako kideen bi herenek onesten badute.<br>2.– Hauteskunde Batzordeko lehendakari eta idazkari gisa, adin handienetakoa eta txikienekoa arituko dira, hurrenez hurren.<br>3.– Hautagai gisa aurkezten direnak inola ere ezin izango dira izan Hauteskunde Batzordeko kideak. Izendatutako Hauteskunde Batzordeko kideren batek kargu hori hartzen badu, utzi egin beharko du, eta bere lekua izendatutako ordezkoak hartuko du. | Artículo 64.– 1.– Los miembros de la Junta Electoral, así como los suplentes, serán elegidos por sorteo público entre las personas que no vayan a ser candidatas o candidatos.<br>Podrán ser elegidos voluntarios siempre que sea aprobado por 2/3 de los miembros presentes de la Asamblea General.<br>2.– Actuarán de Presidente y Secretario de la Junta Electoral el de mayor y menor edad respectivamente.<br>3.– En ningún caso podrán formar parte de la Junta Electoral los que fueran a presentarse como candidatos; si esta condición recayese en alguno de los componentes de la Junta Electoral nombrada, deberá cesar y ocupar su lugar el suplente designado. |
| 65. artikulua.– 1.– Hauteskunde Batzordeak ondorengo funtzioak izango ditu:<br>a) Hautesleen errolda eta hauteskundeetako egutegia onartzea.<br>b) Aurkeztutako hautagaiak izendatzea eta argitaratzea.<br>c) Hauteskunde-mahaia izendatzea.<br>d) Hautetsiak zein diren izendatzea.<br>e) Aurkezten diren inpugnazioak, erreklamazioak, eta eskaerak ebaztea, eta hauteskunde-mahaiaren erabakien aurka jartzen diren errekurtsoak ere bai.<br>f) Hauteskundeak burutzeari eta bere emaitzei zuzenean eragiten dion edozein auzi.<br>2.– Kirol Justiziako Euskal Batzordearen aurrean Hauteskunde Batzordeak hartzen dituen erabakien aurka egin ahal izango | Artículo 65.– 1.– La Junta Electoral tendrá encomendadas las siguientes funciones:<br>a) Aprobar el censo de electores y el calendario electoral.<br>b) Proclamar y publicar las candidaturas presentadas.<br>c) Designar la mesa electoral.<br>d) Proclamar los candidatos electos.<br>e) Resolver las impugnaciones, reclamaciones, peticiones que se presenten y los recursos que se interpongan contra las decisiones de la mesa electoral.<br>f) Cualquier cuestión que afecte directamente a la celebración de las elecciones y a sus resultados.<br>2.– Las decisiones que adopte la Junta Electoral de la Federación Vasca de Voleibol serán impugnables ante el |

| | |
|---|---|
| da. | Comité Vasco de Justicia Deportiva. |
| 66. artikulua.– Hauteskunde Batzordeak, hautagai izango ez diren hautesleen artean zozketa egin eta gero, hiru kiderekin osatutako Hauteskunde Mahaia izendatuko du; eta ordezkoen kopuru baliokidea ere bai. Lehendakaria eta idazkaria kiderik zaharrena eta gazteena izango dira, hurrenez hurren. | Artículo 66.– La Junta Electoral, previo sorteo entre los electores que no vayan a ser candidatos, designará una Mesa Electoral compuesta por tres miembros, así como un número igual de suplentes, siendo su presidente y secretario el de mayor y menor edad respectivamente. |
| 67. artikulua.– 1.– Hauteskunde Mahaiak ondorengo funtzioak izango ditu: | Artículo 67.– 1.– La Mesa Electoral tendrá las siguientes funciones: |
| a) Bozketak behar bezala egitea bermatzea. | a) Velar por el correcto desarrollo de las votaciones. |
| b) Boto-emaileak nortzuk diren, eta hautesleak direla egiaztatzea. | b) Comprobar la identidad de los votantes y su condición de electores. |
| c) Emandako botoak baliozkoak diren ebaztea. | c) Resolver sobre la validez de los votos emitidos. |
| d) Bozketa bukatu eta gero botoak zenbatzea. | d) Efectuar el recuento de los votos una vez terminada la emisión de los mismos. |
| e) Bozketarekin zerikusia duen beste edonolako gairen inguruan erabakitzea. | e) Resolver cualquier otro asunto relativo a la votación. |
| 2.– Hauteskunde Mahaiak hartutako erabakien aurka, Hauteskunde Batzordean egin ahal izango da. | 2.– Las decisiones que adopte la Mesa Electoral serán impugnables ante la Junta Electoral. |
| **VII. TITULUA**<br>**EKONOMIA ETA ONDARE ERREGIMENA** | **TÍTULO VII**<br>**RÉGIMEN ECONÓMICO-PATRIMONIAL** |
| 68. artikulua.– 1.– Boleibol Euskal Federakundeak berezko aurrekontu eta ondare erregimena du. | Artículo 68.– 1.-La Federación Vasca de Voleibol está sujeta al régimen de presupuesto y patrimonio propio. |
| 2.– Federazioaren ondarea hainbat ondasunek osatuko dute zeinen titulartasuna baitagokio. | 2.– El patrimonio de la Federación Vasca de Voleibol estará integrado por los bienes cuya titularidad le corresponda. |
| 3.– Federazioak ondorengo baliabideak ditu: | 3.– Son recursos de la Federación los siguientes: |
| a) Federatuen kuotak. | a) Las cuotas de los federados. |
| b) Erakunde publikoek eman ditzakeen diru-laguntzak. | b) Las subvenciones que las entidades públicas puedan concederle. |
| c) Dohaintzak, herentziak, legatuak eta sariak. | c) Las donaciones, herencias, legados y premios. |
| d) Antolatzen dituen kirol jarduеretan eta lehiaketetan ateratako mozkinak. | d) Los beneficios que produzcan las actividades y competiciones deportivas que organice. |
| e) Industria eta merkataritza-jardueretan, jarduera profesionaletan edo egindako zerbitzuetan ateratako mozkinak. | e) Los beneficios derivados de las actividades industriales, comerciales, profesionales o de servicios que realice. |
| f) Bere ondarearen emaitzak, eta ondarea besterentzetik edo zergapetzetik lortutakoa, urtarrilaren 31ko 16/2006 Dekretuko 138. artikuluan ezarritako baldintzen arabera. | f) Los frutos de su patrimonio y el producto de la enajenación o gravamen del mismo, en las condiciones establecidas en el artículo 138 del Decreto 16/2006, de 31 de enero. |
| g) Lortzen dituen mailegu eta kredituak. | g) Los préstamos o créditos que obtenga. |
| h) Bere jarduera garatzerakoan lor ditzakeen bestelakoak. | h) Cualesquiera otros que pudiera obtener en el desarrollo de su actividad. |
| 69. artikulua.– 1.– Federazioaren diru-sarrera guztiak, kirol jardueretan nahiz industria, merkataritza, zerbitzu izaerako edo izaera profesionaleko jardueretan lor ditzakeen irabaziak eta sariak, osorik bere helburu soziala garatzeko erabiliko dira. | Artículo 69.– 1.– Todos los ingresos federativos, incluidos los beneficios y los premios obtenidos en manifestaciones deportivas, así como los que pudiera obtener la federación del ejercicio de actividades de carácter industrial, comercial, profesional o de servicios, se aplicarán íntegramente al desarrollo de su objeto social. |
| 2.– Irabaziak ezin izango dira inola ere federazioko kideen artean banatu. | 2.– Bajo ningún concepto se podrá efectuar reparto de beneficios entre los miembros de la Federación Vasca de Voleibol. |
| 70. artikulua.– Boleibol Euskal Federakundeak ondasun higiezinak zergapetu edo besterendu ditzake, dirua maileguan har dezake, eta zorraren eta ondare zati alikuotaren titulu ordezkatzaileak jaulki ditzake, urtarrilaren 31ko 16/2006 Dekretuaren 138 eta 139. artikuluan ezarritako kasu eta | Artículo 70.– La Federación Vasca de Voleibol podrá gravar y enajenar los bienes inmuebles, tomar dinero a préstamo y emitir títulos representativos de deuda o de parte alícuota patrimonial, en los casos y condiciones establecidas en los artículos 138 y 139 del Decreto 16/2006, de 31 de enero. |

| | |
|---|---|
| baldintzetan. | |
| 71. artikulua.– Boleibol Euskal Federakundeak goi zuzendaritzako lan kontratuak izenpetu ahal izango ditu, betiere erabakia eta ordainsaria zein kontratuaren gainerako baldintzak Batzar Nagusira bertaratutakoek gehiengo osoarekin onartzen badute, eta Eusko Jaurlaritzako Kirol Zuzendaritzak kontratu hori egiteko baimena ematen badu. | Artículo 71.– La Federación Vasca de Voleibol podrá suscribir contratos laborales de alta dirección siempre que el acuerdo, así como la cuantía de la remuneración y las demás condiciones del contrato, sean aprobados por la mayoría absoluta de miembros presentes de la Asamblea General y sea autorizado dicho contrato por la Dirección de Deportes del Gobierno Vasco. |
| 72. artikulua.– 1.– Boleibol Euskal Federakundeak ekitaldi bakoitzaren aurrekontua urtero onartuko du. | Artículo 72.– 1.– La Federación Vasca de Voleibol aprobará anualmente el presupuesto de cada ejercicio. |
| 2.– Zuzendaritza Batzordea arduratuko da aurrekontuaren proiektua egiteaz, eta Batzar Nagusiari dagokio onartzea. | 2.– Corresponderá a la Junta Directiva la elaboración del proyecto de presupuesto y su aprobación será competencia de la Asamblea General. |
| 3.– Federazioak gehienez onartu ditzakeen betebeharrak, eta dagokion ekitaldian likidatzea aurreikusten diren eskubideak aurrekontuan adieraziko dira. Boleibol Euskal Federakundearen aurrekontuan, halaber, kirol modalitate horretan emakume eta gizonen arteko berdintasuna sustatzearekin zerikusia duten betebeharrak adierazi beharko dira. | 3.– El presupuesto expresará, cifrada, conjunta y sistemáticamente, las obligaciones que, como máximo, puede contraer la federación y los derechos que se prevén liquidar durante el correspondiente ejercicio. El presupuesto de la Federación Vasca de Voleibol deberá reflejar, asimismo, las obligaciones relacionadas con la promoción de la igualdad de mujeres y hombres en dicha modalidad deportiva. |
| 4.– Aurrekontu bakarra egongo da, eta federazioaren gastu eta diru-sarrera guztiak barne hartuko du, organo osagarrienak edo horien tresna erakundeenak barne. Kudeaketa edo antolamenduko beharrek hala eskatzen dutenean, Boleiboleko Euskal Federazioak kontabilitateko azpierakundeak sortu ahal izango ditu zein sistema zentralean behar bezala integratuta egongo baitira. | 4.– El presupuesto será único e incluirá la totalidad de los gastos e ingresos de la federación, incluidos los órganos complementarios o entidades instrumentales de la misma. Cuando las necesidades de gestión u organización lo requieran, la Federación Vasca de Voleibol podrá crear subentidades contables debidamente integradas en el sistema central. |
| 5.– Aurrekontua orekatua izango da, eta ez da inola ere defizita duen aurrekonturik onartuko, Eusko Jaurlaritzaren aldez aurretiko baimena eskuratu gabe. | 5.– El presupuesto será equilibrado y en ningún caso podrá aprobarse un presupuesto deficitario sin obtener la autorización previa del Gobierno Vasco. |
| 6.– Behin Batzar Nagusiaren onespena lortutakoan, aurreko ekitaldiko aurrekontua eta likidazioa Eusko Jaurlaritzari helaraziko zaio. | 6.– Una vez obtenida la aprobación de la Asamblea General se dará traslado del presupuesto y de la liquidación del presupuesto anterior al Gobierno Vasco. |
| 7.– Federazioaren Zuzendaritza Batzordeak aurrekontu osoaren % 30 gainditzen ez duten aurrekontuari dagozkion aldaketak egitea erabaki dezake. | 7.– La Junta Directiva de la Federación podrá acordar las modificaciones presupuestarias que no excedan del 30% del presupuesto total. |
| 73. artikulua.– 1.– Ekitaldi bakoitza itxi eta hurrengo hiru hilabeteren barruan, federazioaren Zuzendaritza Batzordeak urteko kontuak aurkeztu beharko ditu Batzar Nagusian, eta kontu horietan agertu beharko dira: balantzea, galeren eta irabazien kontua, eta memoria ekonomikoa. | Artículo 73.– 1.– Dentro de los tres meses siguientes al cierre de cada ejercicio, la Junta Directiva de la Federación Vasca de Voleibol elevará a la Asamblea General las cuentas anuales, que comprenderán el balance, la cuenta de pérdidas y ganancias y la memoria económica. |
| 2.– Zuzendaritza Batzordeak egiten dituen urteko kontuak lehendakariak, eta hala dagokionean, diruzainak izenpetu beharko dituzte. | 2.– Las cuentas anuales que formule la Junta Directiva deberán estar firmadas por la o el Presidente y, en su caso, la o el Tesorero. |
| 3.– Federazioaren urteko kontuen egitura bat etorriko da Kontabilitateko Plan Orokorraren egokitze arauekin. Arau hauek, erakunde horien berezitasunak aintzat hartuz, arautegietan ezarriko dira. Arauak ezartzen ez diren bitartean urteko kontuak Kontabilitateko Plan Orokorrarekin egokituko dira. | 3.– Las cuentas anuales de la Federación Vasca de Voleibol se ajustarán en su estructura a las normas de adaptación del Plan General de Contabilidad que, en razón del carácter peculiar de estas entidades, se establezcan reglamentariamente. Mientras no se establezcan las mismas las cuentas anuales se ajustarán al Plan General de Contabilidad. |
| 74. artikulua.– Boleibol Euskal Federakundean, hala dagokionean, finantzen eta kudeaketaren kontu ikuskaritza burutu beharko da, urtarrilaren 31ko 16/2006 Dekretuaren 144. artikuluan xedatzen denari jarraiki. | Artículo 74.– La Federación Vasca de Voleibol deberá someterse, en su caso, a auditoría financiera y de gestión conforme a lo dispuesto en el artículo 144 del Decreto 16/2006, de 31 de enero. |

## VIII. TITULUA
## AGIRI ERREGIMENA

75. artikulua.– Boleibol Euskal Federakundea nahitaez ondorengo liburuez arduratuko da:

a) Federazioko estamentuen liburua, estamentu bakoitzari dagokion ataletan banatuta. Liburu horretan agertuko dira eguneratuak dauden atalen zerrenda, eta federazioan sartu diren eta handik atera diren data.

b) Federazioaren akten liburua. Bertan, Batzar Nagusiak, Zuzendaritza Batzordeak eta federazioaren gainerako organoek hartzen dituzten erabakiak azalduko dira.

c) Kontabilitate liburuak.

d) Hala badagokio, zor tituluen edo ondare parte alikuotaren Erregistro Liburua.

Liburu hauek Euskal Herriko Kirol Erakundeen Erregistroan bideratu beharko dira.

## IX. TITULUA
## FEDERAZIOA DESEGITEA ETA LIKIDATZEA

76. artikulua.– 1.– Boleibol Euskal Federakundea ondorengo arrazoiengatik desegingo da:

a) Ezohiko Batzar Nagusira bertaratutakoen bi herenek hala erabakitzen badute, eta artikulu honen bigarren atalean aurreikusitako arrazoiren bat egoten bada.

b) Epaileak erabakitzen badu.

2.– Boleibol Euskal Federakundea ondorengo arrazoiengatik desegin beharko da:

a) Federazioaren onarpen ofiziala baliogabetzen bada.

b) Administrazioko funtzio publikoak behar bezala betetzea guztiz ezinezkoa bada.

c) Federazioko organoak gelditzeagatik, eta horren ondorioz, bere funtzionamendua ezinezkoa izateagatik.

d) Eskuordetutako funtzio publikoak betetzen ez baditu.

e) Beste kirol federazio batekin bat egiten badu.

f) Beste kirol federazio batean sartzen bada.

g) Indarrean dagoen legedian aurreikusitako beste edozein arrazoirengatik.

77. artikulua.– 1.– Lehendakariak Batzar Nagusiari deituko dio desegiteko erabakia har dezan. Erabakia bi hilabeteko denbora-epean hartu beharko du, desegitea eragiten duen arrazoia ezagutzen den unetik aurrera.

2.– Pertsona federatuek eta Eusko Jaurlaritzako Kirol Zuzendaritzak lehendakariari Batzar Nagusira deitzea eskatu ahal izango diote, beren ustez aurreko artikuluan aipatutako arrazoiren bat egoten bada.

3.– Batzar Nagusirako deirik egiten ez bada, edo adostasunik lortzen ez bada, edozein federatuk ala eskumena duen kirol Administrazioak berak federazioaren desegite judiziala eskatu ahal izango du.

## TÍTULO VIII
## RÉGIMEN DOCUMENTAL

Artículo 75.– La Federación Vasca de Voleibol llevará obligatoriamente los siguientes libros:

a) Libro de estamentos federativos, dividido en aquellas secciones que se correspondan con cada estamento. Tal libro contendrá la relación actualizada de los mismos así como se fecha de incorporación y baja.

b) Libro de actas de la Federación, donde constarán los acuerdos que adopten la Asamblea General, la Junta Directiva y demás órganos de la federación.

c) Libros de contabilidad.

d) En su caso, Libro de Registro de títulos de deuda o de parte alícuota patrimonial.

Estos libros deberán diligenciarse en el Registro de Entidades Deportivas del País Vasco.

## TÍTULO IX
## DISOLUCIÓN Y LIQUIDACIÓN DE LA FEDERACIÓN

Artículo 76.– 1.– La Federación Vasca de Voleibol se disolverá:

a) Por acuerdo de la Asamblea General extraordinaria adoptado por mayoría de dos tercios y precedido de la concurrencia de alguna de las causas previstas en el apartado segundo de este artículo.

b) Por decisión judicial.

2.– La Federación Vasca de Voleibol deberá disolverse por las siguientes causas:

a) Por la revocación del reconocimiento oficial de la federación.

b) Por la imposibilidad manifiesta de ejercer adecuadamente las funciones públicas de carácter administrativo.

c) Por la paralización de los órganos federativos de modo que resulte imposible su funcionamiento.

d) Por la falta de ejercicio de las funciones públicas encomendadas.

e) Por su fusión con otra federación deportiva.

f) Por su integración en otra federación deportiva.

g) Por cualesquiera otras causas previstas en la legislación vigente.

Artículo 77.– 1.– La o el Presidente de la Federación Vasca de Voleibol deberá convocar a la Asamblea General para que la misma adopte el correspondiente acuerdo de disolución en el plazo de dos meses desde que tenga conocimiento de la existencia de la causa determinante de la disolución.

2.– Las personas federadas y la Dirección de Deportes del Gobierno Vasco también podrán requerir al Presidente para que convoque la Asamblea General si, a su juicio, concurre cualquiera de las causas enumeradas en el artículo anterior.

3.– En el caso de que la Asamblea General no fuese convocada o no pudiese lograrse el acuerdo, o este fuera contrario a la disolución, cualquier federado o federada o la propia Administración deportiva competente podrá solicitar la disolución judicial de la federación.

| | |
|---|---|
| 4.– Federazioaren Zuzendaritza Batzordea behartuta dago desegite judiziala eskatzera, federazioaren erabakia desegitearen aurkakoa bada, ala desegitea lortu ezin bada. | 4.– La Junta Directiva de la federación estará obligada a solicitar la disolución judicial cuando el acuerdo federativo fuera contrario a la disolución o no pudiera ser logrado. |
| 78. artikulua.– Behin federazioa deseginda, likidatze aldia hasiko da, bat-egitea ala desegiten den federazioaren aktibo eta pasiboaren lagapen orokorra gertatzen den kasuetan izan ezik. | Artículo 78.– Una vez disuelta la federación se abrirá el periodo de liquidación, salvo en los supuestos de fusión o cualquier otro supuesto de cesión global del activo y pasivo de la federación. |
| 79. artikulua.– Boleibol Euskal Federakundea desegindakoan, likidatzen ari den bitartean bere nortasun juridikoa mantenduko du. Fase horretan bere izenaren ondoan "likidazioan" jarri beharko du. | Artículo 79.– La Federación Vasca de Voleibol, una vez disuelta, conservará su personalidad jurídica mientras se encuentre en liquidación. Durante esta fase deberá añadir a su denominación la frase "en liquidación". |
| 80. artikulua.– Federazioak likidatzen ari dela adierazten duen unetik aurrera Zuzendaritza Batzordeak bere funtzioak utziko ditu, eta likidatzaileek hartuko dituzte haien funtzioak. Hala eta guztiz ere, Zuzendaritza Batzordeko kideek likidazio eragiketak burutzerakoan parte hartu beharko dute. | Artículo 80.– Desde el momento en que la federación se declare en liquidación cesará en sus funciones la Junta Directiva, asumiendo las y los liquidadores sus funciones. No obstante lo anterior, las y los integrantes de la Junta Directiva deberán prestar su concurso para la realización efectiva de las operaciones de liquidación. |
| 81. artikulua.– 1.– Federazioaren Batzar Nagusiak likidatzaileak izendatu beharko ditu, eta kopurua beti bakoitia izango da. | Artículo 81.– 1.– Corresponderá a la Asamblea General de la Federación Vasca de Voleibol el nombramiento de liquidadores o liquidadoras, cuyo número será siempre impar. |
| 2.– Likidatzaileak izendatzen nahiz kargutik kentzen direnean Euskal Herriko Kirol Erakundeen Erregistroan inskribatu beharko da. | 2.– El nombramiento y cese de las y los liquidadores deberá inscribirse en el Registro de Entidades Deportivas del País Vasco. |
| 82. artikulua.– Federazioko likidatzaileen funtzioak ondorengoak izango dira: | Artículo 82.– Incumben a las y los liquidadores de la federación las siguientes funciones: |
| a) Administrazio organoarekin batera bere funtziotan hastean federazioak duen hasierako balantzea onestea. | a) Suscribir, en unión del órgano de administración, el balance inicial de la federación al comenzar sus funciones. |
| b) Federazioko liburuez eta gutunez arduratzea eta horiek zaintzea. Era berean, ondarearen segurtasuna bermatzea. | b) Llevar y custodiar los libros y correspondencia de la federación y velar por la integridad de su patrimonio. |
| c) Federazioa likidatzeko egiteke dauden eragiketak, nahiz egin beharreko berriak burutzea. | c) Realizar aquellas operaciones pendientes y las nuevas que sean necesarias para la liquidación de la federación. |
| d) Federazioaren ondasunak eta eskubideak besterentzea. Ondasun higiezinak nahitaez enkante publikoan salduko dira. Zuzeneko salmenta Eusko Jaurlaritzak baimentzen duen kasuetan bakarrik egin ahal izango da. | d) Enajenar los bienes y derechos federativos. Los bienes inmuebles se venderán necesariamente en subasta pública. Sólo procederá la venta directa en aquellos supuestos autorizados por el Gobierno Vasco. |
| e) Transakzioak eta arbitrajeak adostea, federazioaren interesentzat komenigarria bada. | e) Concertar transacciones y arbitrajes cuando así convenga a los intereses federativos. |
| f) Hartzekodunei ordaintzea. | f) Pagar a los acreedores y acreedoras. |
| g) Federazioaren ordezkari izatea. | g) Ostentar la representación de la federación. |
| 83. artikulua.– Likidazioa amaitutakoan, likidatzaileek azken balantzea egingo dute, eta Batzar Nagusian aurkeztuko da, hauek onartu dezaten. Ondoren, Eusko Jaurlaritzako Kirol Zuzendaritzari bidaliko zaio. | Artículo 83.– Terminada la liquidación, las y los liquidadores formarán el balance que se someterá a la aprobación de la Asamblea General de la Federación Vasca de Voleibol y se remitirá a la Dirección de Deportes del Gobierno Vasco. |
| 84. artikulua.– Likidatzaileen funtzioa ondorengo arrazoiengatik bukatuko da: | Artículo 84.– La función de las y los liquidadores finalizará por: |
| a) Likidazioa egitea. | a) La realización de la liquidación. |
| b) Batzar Nagusiak emandako botereak baliogabetzea. | b) La revocación de los poderes otorgados por la Asamblea General. |
| c) Eusko Jaurlaritzako Kirol Zuzendaritzak botereak baliogabetzea edo gaitasunik gabe uztea. | c) La revocación de los poderes o inhabilitación por la Dirección de Deportes del Gobierno Vasco. |
| d) Epaileak erabakitzen badu. | d) Por decisión judicial. |
| 85. artikulua.– Federazioak kaudimenik ez badu, likidatzaileek dagokion lehiaketa adierazpena berehala eskatu beharko dute. | Artículo 85.– En caso de insolvencia de la federación, las y los liquidadores deberán solicitar inmediatamente la declaración concursal correspondiente. |
| 86. artikulua.– Federazioa desegiten bada, batzorde | Artículo 86.– La extinción de la federación se notificará por la |

| | |
|---|---|
| likidatzaileak Euskal Herriko Kirol Erakundeen Erregistroari jakinaraziko dio honek inskripzioa bertan behera uzteari ekin diezaion. | comisión liquidadora al Registro de Entidades Deportivas del País Vasco para que proceda a la cancelación de la inscripción. |
| **X. TITULUA**<br>**ESTATUTUAK ETA ARAUTEGIAK** | **TÍTULO X**<br>**ESTATUTOS Y REGLAMENTOS** |
| 87. artikulua.– Boleibol Euskal Federakundearen estatutuak ezohiko Batzar Nagusira bertaratutakoen bi herenek onartzen badute soilik aldatu ahal izango dira. | Artículo 87.– Los estatutos de la Federación Vasca de Voleibol sólo podrán ser modificados por acuerdo de la Asamblea General extraordinaria adoptado por mayoría de 2/3 de miembros presentes en la reunión. |
| 88. artikulua.– Estatutuen proiektua onartutakoan, Euskal Herriko Kirol Zuzendaritzari bidaliko zaio, hirurogei egun naturaleko denbora-epean, Batzar Nagusiak erabakia hartzen duen unetik aurrera. | Artículo 88.– Aprobado el proyecto de estatutos se enviará a la Dirección de Deportes del Gobierno Vasco en el plazo de sesenta días naturales a partir del acuerdo de la Asamblea General. |
| 89. artikulua.– Aipatutako estatutuak Euskal Autonomia Erkidegoko bi hizkuntzetan, eta Eusko Jaurlaritzak eskatzen duen euskarri informatikoan aurkeztu beharko dira. | Artículo 89.– Dichos estatutos deberán presentarse en las dos lenguas de la Comunidad Autónoma de Euskadi y en el soporte informático que sea requerido por el Gobierno Vasco. |
| 90. artikulua.– Federazioaren estatutuak indarrean sartzeko administrazioak onartu egin beharko ditu, eta gero Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratu beharko dira. | Artículo 90.– La vigencia de los estatutos de la federación estará vinculada a su aprobación administrativa y posterior publicación en el Boletín Oficial del País Vasco. |
| 91. artikulua.– Boleibol Euskal Federakundeak, gutxienez, ondorengoak arautu beharko ditu:<br>a) Lehiaketa ofizialak antolatzeko eta garatzeko erregimena.<br>b) Diziplina erregimena.<br>c) Hauteskunde erregimena.<br>d) Gatazken judizioz kanpoko ebazpenen erregimena.<br>e) Lizentzien erregimena. | Artículo 91.– La Federación Vasca de Voleibol deberá reglamentar como mínimo:<br>a) El régimen de organización y desarrollo de sus competiciones oficiales.<br>b) El régimen disciplinario.<br>c) El régimen electoral.<br>d) El régimen de resolución extrajudicial de conflictos.<br>e) El régimen de licencias. |
| 92. artikulua.– Boleibol Euskal Federakundearen arautegiak Eusko Jaurlaritzako Kirol Zuzendaritzari aurkeztuko zaizkio honek onar ditzan, hirurogei egun naturaleko denbora-epean, Batzar Nagusiak onartzen dituen unetik aurrera. | Artículo 92.– Los reglamentos de la Federación Vasca de Voleibol se presentarán para su aprobación administrativa en la Dirección de Deportes del Gobierno Vasco en el plazo de sesenta días naturales a contar desde su aprobación por la Asamblea General de la misma. |
| 93. artikulua.– Arautegiak onesteko eta aldatzeko xede horretarako deitutako ezohiko Batzar Nagusira bertaratutako kide gehienen aldeko botoa beharko da. | Artículo 93.– Para la aprobación y modificación de los reglamentos será preciso el voto favorable de la mayoría de los asistentes a la Asamblea General extraordinaria convocada al efecto. |
| 94. artikulua.– 1.– Federazioaren zirkularrak estatutuen eta arautegien indarraldia, ezarpena, interpretazioa nahiz federazioari dagozkion bestelako gaiak jakinarazteko erabiliko dira, baina ez dute berezko arau izaerarik izango.<br>2.– Federazioaren zirkularrek ez dute aurretiko administrazio onarpenik behar izango. | Artículo 94.– 1.– Las circulares federativas servirán para notificar e informar sobre la vigencia, aplicación o interpretación de estatutos y reglamentos, o sobre otras cuestiones federativas, pero no tendrán naturaleza normativa.<br>2.– Las circulares federativas no precisarán de aprobación administrativa previa. |
| 95. artikulua.– 1.– Lurralde eremuz gaindiko federazioetako estatutuak eta arautegiak federazioari eta horretako kideei zuzenean aplikatu ahal izango zaizkie, soilik euskal federazio hau federazio horietako kidea izateaz gainera hauen eskumeneko arloen inguruan bada. Kasu horretan, Boleibol Euskal Federakundeak arau horiek zabaldu egin beharko ditu, federazioaren estamentu ezberdinek behar bezala ezagutu ditzaten. Arau horiek federazio honetako hizkuntza ofizialetakoren batean idatzi beharko dute. | Artículo 95.– 1.– Los estatutos y reglamentos de las federaciones de ámbito territorial superior sólo serán directamente aplicables a la federación y a sus miembros si esta federación vasca se halla integrada en aquellas federaciones y respecto a las materias que son competencia de las mismas. En tal caso, la Federación Vasca de Voleibol deberá divulgar dichas normas para un efectivo conocimiento por los distintos estamentos de la federación. Tales normas deberán estar escritas en alguna de las lenguas oficiales de esta federación. |
| 2.– Lurralde eremuz gaindiko kirol federazioetako gainerako arauak, ez dira zuzenean aplikagarri izango euskal federazioei | 2.– Las demás normas de las federaciones deportivas de ámbito territorial superior no serán directamente aplicables a |

eta bere kideei. Federazioaren beraren arautegira erantsiko dira, federazioak eta administrazioak arau horiek onartzen dituztenean, eta Euskal Herriko Kirol Erakundeen Erregistroan izen-ematea burutzen denean soilik.

3.– Erkidegoaz gaindiko kirol federazioen arautegiak ezin izango dira Boleibol Euskal Federakundean era osagarrian aplikatu. Hala ere, arau horiek era osagarrian aplikatu ahal izango dira, betiere bere arautegietan aipamen berezi bat ezartzen bada, federatuek arau horiek egoki itzulita eskuragarri badituzte, eta behar bezala zabalduta badaude.

## XI. TITULUA
## HIZKUNTZA NORMALIZAZIOA

96. artikulua.– Euskara eta gaztelera Boleibol Euskal Federakundearen hizkuntza ofizialak dira.

97. artikulua.– Boleibol Euskal Federakundeko organoek federazioaren baitan hizkuntza normalizazioko pixkanakako prozesua bermatuko dute, urtarrilaren 31ko 16/2006 Dekretuaren hirugarren xedapen iragankorrean xedatutakoari jarraiki.

98. artikulua.– Federazioaren ziurtagiriak bi hizkuntzetan edo Euskal Autonomia Erkidegoko bi hizkuntza ofizialetako batean eman ahal izango dira, interesdunak hala eskatzen duenean.

## XII. TITULUA
## GATAZKEN JUDIZIOZ KANPOKO EBAZPENA

99. artikulua.– Federazioaren eta bere federatu edo kideen artean, nahiz kideen artean gerta daitezkeen desadostasunak edo gai eztabaidagarriak Zuzenbide Arbitrajearen bidez ebatzi beharko dira, indarreko legedian, Estatutu hauetan eta garatzen ari den arautegian ezarritako baldintzei jarraiki.

100. artikulua.– Arbitraje bidez, edo, oro har, gatazken judizioz kanpoko ebazpenen bidez konpon daitezkeen desadostasunak edo gai eztabaidagarriak Kirola Arbitratzeko Euskal Epaimahaian aurkeztuko dira.

101. artikulua.– Administrazioak federazioari eskuordetutako funtzio publikoak betetzearekin zerikusia duten gaiak, eta legeriak espresuki kanpo utzitako arbitrajekoak nahiz lege arlokoak ez beste guztiak bide horren bidez ebatziko dira.

102. artikulua.– Federazioko federatu ala kide orok zeinek Estatutu hauek onartzen diren egunetik, edo lizentzia lortzen duen egunetik hilabete batera kargua espresuki uzten ez baitu, Estatutu hauetan nahiz garatzen ari den arautegian aurreikusitako arbitraje-sistemaren eta gatazken judizioz kanpoko ebazpenaren menpean egongo da.

## XEDAPEN IRAGANKORRAK

las federaciones vascas y a sus miembros. Sólo se incorporarán a la normativa propia de la federación cuando se produzca su aprobación federativa y administrativa así como su inscripción en el Registro de Entidades Deportivas del País Vasco.

3.– Los reglamentos de las federaciones deportivas supraautonómicas no resultarán de aplicación supletoria en la Federación Vasca de Voleibol. No obstante, podrá aplicar supletoriamente dichas normas siempre que exista una remisión expresa en sus reglamentos, sus federados y federadas dispongan de aquellas normas adecuadamente traducidas y se encuentren suficientemente difundidas.

## TÍTULO XI
## NORMALIZACIÓN LINGÜÍSTICA

Artículo 96.– El euskera y el castellano constituyen lenguas oficiales de la Federación Vasca de Voleibol.

Artículo 97.– Los órganos de la Federación Vasca de Voleibol garantizarán un proceso gradual de normalización lingüística en el seno de la federación conforme a lo dispuesto en la Disposición Transitoria Tercera del Decreto 16/2006, de 31 de enero.

Artículo 98.– Las certificaciones de la federación podrán emitirse en bilingüe o en cualquiera de las dos lenguas oficiales de la Comunidad Autónoma en función de lo manifestado por la persona interesada.

## TÍTULO XII
## RESOLUCIÓN EXTRAJUDICIAL DE CONFLICTOS

Artículo 99.– Las diferencias o cuestiones litigiosas que puedan plantearse entre la Federación Vasca de Voleibol y sus federados o miembros o entres estos serán resueltas por medio de Arbitraje en Derecho, en los términos establecidos en la legislación vigente, en los presentes Estatutos y en el Reglamento de desarrollo.

Artículo 100.– Las diferencias o cuestiones litigiosas susceptibles de ser resueltas mediante arbitraje o, en general, resolución extrajudicial de conflictos, serán sometidas al Tribunal Vasco de Arbitraje Deportivo.

Artículo 101.– Salvo las cuestiones relacionadas con el ejercicio de funciones públicas delegadas por la Administración a la Federación Vasca de Voleibol y las materias legal y expresamente excluidas de arbitraje por la legislación, las demás serán resueltas por esta vía.

Artículo 102.– Todo federado o miembro de la federación que, en el plazo de un mes, a contar desde la fecha de aprobación de los presentes Estatutos o desde la fecha en que obtenga licencia no renunciare expresamente se supone queda sometido al sistema de arbitraje y resolución extrajudicial de conflictos previsto en los presentes Estatutos y en el Reglamento de desarrollo.

## DISPOSICIONES TRANSITORIAS

| | |
|---|---|
| Lehenengoa.– Eusko Jaurlaritzak urtarrilaren 31ko 16/2006 Dekretuaren 25. artikuluan aurreikusitako lizentzien zehazpen teknikoak onartu arte federazioak lizentziak egoki deritzon formatuarekin ematen jarraitu ahal izango du.<br><br>Bigarrena.– Estatutu hauetako 27. eta 37. artikuluetan xedatutako agintaldien mugek ez dute eraginik izango estatutu hauek indarrean sartzean zeuden karguetan, eta ondorioz, kargu horiek gaur egungo agintaldiak bukatu ahal izango dituzte. Kargu horiei hurrengo hauteskunde-prozesuei dagokionean aipatu mugak soilik aplikatuko zaizkie. | Primera.– Hasta que el Gobierno Vasco no apruebe las especificaciones técnicas de las licencias, previstas en el artículo 25 del Decreto 16/2006, de 31 de enero, la federación podrá seguir emitiendo las licencias con el formato que estime oportuno.<br>Segunda.– Las limitaciones de mandatos establecidas en los artículos 27 y 37 de los presentes estatutos no afectarán a los cargos existentes a la entrada en vigor de estos estatutos y dichos cargos podrán, en consecuencia, finalizar sus actuales mandatos. A tales cargos sólo les resultará de aplicación las citadas limitaciones estatutarias para próximos procesos electorales. |
| **XEDAPEN INDARGABETZAILEA** | **DISPOSICIÓN DEROGATORIA** |
| Indargabetuta geratzen dira 1995eko urriaren 10ean onartutako federazioaren estatutuak. | Quedan derogados los estatutos de la Federación Vasca de Voleibol aprobados con fecha de10 de octubre de 1995. |
| **AZKEN XEDAPENA** | **DISPOSICIÓN FINAL** |
| Estatutu hauek Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratu eta hurrengo egunean indarrean sartuko dira.<br>Vitoria-Gasteiz, 2006ko ekainaren 30a. | Los presentes estatutos entrarán en vigor el día siguiente al de su publicación en el Boletín Oficial del País Vasco.<br>En Vitoria-Gasteiz, a 30 de junio de 2006. |